

Topalekua

52zk. 2009ko maiatza

mayo 2009 - n.º 52

Orr. 1, 2 eta 4: *Gizarte Kontseiluak ontzat eman du UPV/EHUko 2009. urterako aurrekontua.*

Orr. 2 eta 3: *Euskal Herri Administrazioetako Prestakuntza, Ikerketa eta Zerbitzuei buruzko Azterlana aztertu da, Unibertsitateari dagokionez*

Euskal Herri Administrazioetako Prestakuntza, Ikerketa eta Zerbitzuei buruzko Azterlana aztertu da, Unibertsitateari dagokionez

GIZARTE KONTSEILUAK ONTZAT EMAN DU UPV/EHUko 2009. URTERAKO AURREKONTUA, 478 MILIOI EUROTAN

Maiatzaren 6an antolatutako UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Ohiz Kanpoko Osoko Bilkurak, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak aurkeztutako Proiektua aztertu ondoren, ontzat eman zuen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko 2009. urterako Aurrekontua, 478,07 milioi eurotan, alegia; iaz baino %9,31 gehiago.

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak onespén akordioan Aurrekontuari buruzko txosten bat barne sartu du. Bertan, nobedade nagusiak bildu dira eta azterketa ekonomiko eta finantzario sakona egin da, kapituluén, programen eta gastu unitateen arabera antolatuta, zenbait hobekuntza-gomendioekin amaitzeko.

Bertako amaierako gomendioetan, Osoko Bilkurak Unibertsitateari gomendatu dio, ahalik eta lasterren, Euskal Jaurlaritzarekin burutu beharreko jarduerak kontsultatzea, aurreikuspen sistema sozial boluntarioari egin beharreko ekarpenak kudeatzeaz arduratuko den entitatea zehaztu ahal izateko. Aipatutako ekarpenak, 2009. urtean, 6,7 milioi eurokoak izango dira. Era berean, Osoko Bilkurak UPV/EHUri gomendatu dio, 2006-2010 Urte Anitzeko Inbertsioen Planean aldaketa garrantzitsuak eman direnez, dokumentu berri bat idaztea, Gizarte Kontseiluak berriz ontzat eman ahal izateko.




(2., 3. eta 4. orrietan jarraitzen du)

Gainontzekoari dagokionez, ontzat emandako Aurrekontuak iazkoak baino 41 milioi euro gehiago ditu, 2008. urtean ekin egindako joera baieztatuz, alegia: finantzazio esparru egonko-

rragoa edukitzea. Aurrekontuak izandako bilakaera positiboa (2004. urteko 283 milioi euroetatik aurtengo 478 milioi euroetara pasa da), hurrengo grafikoa atzeman daiteke.

2004-2009 AURREKONTUAREN BILAKAERA



■ 2009. URTETARAKO GIZARTE KONTSEILUAREN PROIEKTUAK

Halaber, Osoko Bilkurak 2009. urteko Plan Eragilean garatu beharreko lau proiektu ontzat eman zituen ere, hori guztiak 2007-2010. urtetako Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikoaren barruan, honako helburu hauekin: UPV/EHUKo komunikazioa hobetzea, ikerketa emaitzak hedatzeari dagokionez, titulatuak lehenengo enplegura gerturatzea, ikasleen praktikak hobetzea eta publiko interesgarriari UPV/EHUK bere web orriaren bidez eskaintako zerbitzuak eskura jartzea. Hauek dira 2009. urteko Plan Eragilean barneratutako proiektuak:

- **UPV/EHUKo Ikerketa emaitzak hedatzea.** 45.000 eurotako aurrekontu batekin hornituta, helburua Unibertsitateko Ikerketa Produktuen eta Zerbitzuen Katalogoa osatzea da (dagoeneko Gizarte Kontseiluaren web orrian eskura dago: www.gizartekontseilua.com), “bezero” potentzialei unibertsitate publikoaren ikerketa arloko gaitasunak eramanaz. Horretarako, emaitzen araberako kasu praktikoen paradigmakoak hautatuko dira, bai finantzazio eta unibertsitatearen arteko lankidetzaren sustapenaren eta bai diziplina anitzeko taldeen partaidetzaren edo euren proiektua garatzeko aurre egindako zailtasun berezien arabera.
- **Unibertsitatearen Lehenengo Enplegu Behatokia Eguneratzea.** 30.000 eurotako aurrekontu batekin, egungo krisi testuinguruan, lehen enplegurako sarbide joerak aztertuko ditu, lanpostu berrietarako gaitasun berrietako etorkizuneko premia berriei aurre hartzeko helburuarekin.
- **Ikasleen praktika profesionalak hobetzeko beharrezko baldintzak aztertzea.** 45.000 euro erabiliko dira proiektu hau burutzeko, honako helburu honekin: egungo praktika mota desberdinak aztertzea eta gomendioak burutzea helburua, praktikak eskaintzen dituzten erakundeak hautatzeko irizpideak, ikasleei agindutako zereginak, jarraipen eta garapeneko arduradunak eta lortutako emaitzen ebaluazioa argi eta garbi definitzen lagunduko duten beharreko neurriak hartzeko.


- **UPV/EHUKo Web orriak eskaintako zerbitzuak erabiltzearen alde egiteko Ideien Lehiaketa.** Kontseiluak ideien lehiaketa baterako deialdia egin du 10.000 eurotako sariekin (6.000, lehenengo saria; 3.000, bigarrena eta 1.000, hirugarren saria) gizarteari Unibertsitatearen beraren web orriek, eta osatzen duten ikastetxeek, sailek, institutuek, etab. edo Gizarte Kontseiluak eskaintako zerbitzuak eza-gutzeria emateko eta haien erabilera eskura jartzeko oinarriak finkatzeko helburuarekin.

■ EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOETAKO PRESTAKUNTZA, IKERKETA ETA ZERBITZUEI BURUZKO AZTERLANA AZTERTU DA, UNIBERTSITATEARI DAGOKIONEZ

Iazko urteari dagokion Plan Eragilean amaitutako proiektuei dagokienez, Osoko Bilkurari “**Euskal Herri Administrazioetako Prestakuntza, Ikerketa eta Zerbitzuei buruzko Azterlana, UPV/EHUKo dagokionez**” aztertu zitzaion. Azterlanak EAEko erakundearen premia guztiak aztertu ditu, horretarako Administrazioaren 62 bururi (Eusko Jaurlaritza, Diputazioak eta bestelako erakundeak) eta Unibertsitateko sail edo ikerketa taldeko 45 zuzendariri inkesta eginez. Bertako ondorio nagusien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Administrazioetako eta Unibertsitatearen elkarrekiko jardueraren eta dagozkien interesen **ezagutza nabarmen hobetu daiteke** eta ez dauka harreman egonkorreko ildorik.
- Administrazioetako premien asebetetzerantz doan **UPV/EHUKo orientazio estrategikoa falta da.** Hura Administrazioek sustatutako deialdietan garatutako partaidetza eskasean atzeman daiteke.
- **Ez da existitzen** bi alderdien arteko elkarrekintzaren eta lankidetzaren alde egiten duen **solaskide argirik.** Egungo harreman gehienak banakako harremanetan oinarritzen dira.
- **Ikerketa proiektuak lankidetzaren gehienak oinarritzen diren jarduera mota gisa agertzen dira,**


EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOAK ETA UPV/EHUK ADIERAZITAKO GARATU BERRIKO LANKIDETZEN TIPOLOGIA



prestakuntza ikastaroek (zehatzak, etengabeak irakaskuntza, masterrak, etab.) eta laguntza teknikoko proiektuek urrutitik jarraituta.

- Arloen arabera, **enpresa berrikuntza eta garapenak lankidetzaren gehienak bildu ditu.** Aurkako aldean, oso lankidetzaren urri eman dira enplegu eta ikaskuntza arloan. Egin berri diren baterako proiektuetako asko ingurumenarekin lotutako ikerketa proiektuetan murgildu dira.
- **Baterako esperientzia gehienak positiboak izan dira,** hala ere, bi aldeek aipatu dute burokrasia gehiegi dagoela, eskakizunak oso zorrotzak direla, kudeaketa arintasunez garatzeko solaskide egokiak identifikatu gabe daudela eta, Unibertsitateari dagokionez, jarduerak hauek unibertsitatearen berezko jarduerekin bateratzea oso zaila dela.

EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOAREN ETA UPV/EHUREN ARTEAN GARATU BERRI DIREN LANKIDETZEN ARLO TEMATIKOAK




Aurreko ataletako hutsuneak alde batera utzita, azterlanak dio **lankidetzaren arlo anitzak identifikatu daitezkeela prestakuntza, ikerketa eta zerbitzu jardueretan**, eta horiek Administrazioei puntako ikerketak azterlanak eta lanak garatzeko bide emango lieketela, eta aldi berean, UPV/EHUri barne garatutako ezagutzaren kontraste handiagoa eta aplikazio praktikoagoa bermatuko lieketela. Horri dagokionez, txostenak dio **etorkizuneko lankidetzaren ardatzak ikerketa proiektuak, prestakuntza programak, Herri Administrazioaren modernizazioaren aldeko ekarpenak, gizarte jarduerak eta hezkuntza berrikuntza direla.**


Azkenik, Azterlanak **zazpi gomendio egin ditu UPV/EHU eta Herri Administrazioaren arteko etorkizuneko elkarrekintzan aurrera egiteko:**

1. UPV/EHUK Administrazioekin garatu beharreko **elkarriketa bidea** argitzea eta **hedatzea.**


EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOAREN ETA UPV/EHUREN ARTEAN LANKIDETZAKO MAILAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA



EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOAREN ETA UPV/EHUREN ARTEAN LANKIDETZAN EMANDAKO ARAZO BUROKRATIKOAK



EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOAK ETA UPV/EHUK ADIERAZITAKO AUKERAKO LANKIDETZA ARLOEN RANKING



2. **Talde mistoak** sortzea eta **gauzatzea** elkarrekiko ezagutza hobetzeko, ezagutza eta esperientzia elkar trukatzeko, premiak atzemateko eta aukerako arlo berriak bideratzeko.
3. Funtzio publikora orientatutako profesionalen **prestakuntza hobetzeko** lankidetzan aritzea.
4. **Lankidetzan esparru egonkor bat** konfiguratzea Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) eta UPV/EHU artean.
5. **Baterako prestakuntza planak** egitea Unibertsitatea, Eudel eta Ikerbasque artean.
6. **Beken eta ikerketa lanei emandako sarien programak** hobetzea eta hedatzea.
7. **Herri Administrazioak praktikak** sendotzea eta lizentziatura gehiagoetara zabaltzea.

■ DOKTORETZA IKASTAROKAK

Bestalde, Kontseiluak 62 doktoretza programa ontzat eman zituen 2009-2010. ikasturterako, horiek guztiak Goi Hezkuntzako Europar Gunera egokituta (EEES). Eskaintako guztietatik, 15 Ingeniaritza eta Arkitektura arloei dagozkie; 17 Gizarte Zientziei eta Zientzia Juridikoei; 14 Zientziei; 7 Osasun Zientziei eta 9 Arte eta Giza Zientziei. Doktoretza erdia baino gehiagok, 32 hain zuzen ere, 2008-2009. ikasturtean, Kalitate Saria lortu zuten, alegia; Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako sari bat. Beste 13ak, berriz, beste unibertsitateekin batera

eskaintzen diren unibertsitate arteko doktoretza dira. Sei ikastaro ingelesez emango dira. 62 doktoretza programa hauekin, UPV/EHUK EEES gradu ondoko ziklo osoaren egokitzapena osatu du.

Gai-zerrendaren beste puntu batean, Kontseiluak ontzat eman zuen UPV/EHU, bere Gizarte Kontseilua eta Egailan arteko Hitzarmenaren zirriborroa, 2004-2005. urtetako promozioari dagozkion Unibertsitate Tituludun Pertsonen Lan Merkatuko Behatokia sortzeko. Aipatutako promoziotik ateratako ikasle guztiei inkesta egitea helburu duen azterlan baten zazpigarren edizioa da. Bere xedea kontrastatu daitekeen informazioa biltzea da, agintari akademikoek ebakiak orientatu eta bideratu ahal izateko; ikasleen alde egiteko lanerako trantsizioari dagokionez; lan merkatuaren portaera, ezaugarriak eta hezkuntza eta produkzio sistemaren arteko harremana ezagutzeko, eta enplegu politikaren barruan jardura espezifikoak egokitzen eta definitzen dituen proposamenak diseinatzeko erreminta bat erabilgarri edukitzeko.

Halaber, Osoko Bilkurak UPV/EHUko osagarritzko ikasketen ikastaroaren matrikulako prezioak baliozkotu zituen ere (“Munduko egoerari buruzko ikasketak: Mendebaldeko Behe Saharako Afrika, errealtateak, erronkak eta estrategiak”). Aipatutako matrikula 112,50 eurotan ezarri da. Horretaz gain, honako jarduerak garatu zituen ere: aurrekontuetako hainbat aldaketa ontzat eman zituen; ordainketa osagarriak zenbait ikasleri berriz egokitzea erabaki zuen; UPV/EHUK BTEK Fundazioaren kide fundatzaile gisa parte hartzea ontzat eman zuen eta Unibertsitatea Magisterio Begoñako Andra Mari Unibertsitatetik banatzearen alde egin zuen.